

JUSTIZIA. Erreforma aplikatzeko Frantziako Gobernuak aurreikusi baliabide eskasek abokatuen kezka piztu dute

Errugabetasunari buruzko erreformak auzibideen ibilmoldea aldatuko du

Abokatuak lehen ordutik bisita dezakete atxilotua, hogeitaz orenen buruan izateko ordez

Eneko Bidegain | BAIONA

Gauerdian, goizaldeko 02:00-etan edo 04:00etan telefonoaren tirintak iratzarraztea gertatuko zaie hemendik aitzina Ipar Euskal Herriko abokatu anitz, Frantziakoei bezala. Aste honetan Aña Mari Mendibururi gertatu zaio hori.

Urtarrilaren lehenean jarri zen indarrean errugabetasun presuntzioaren azkartzeko legea. Horrek hainbat aldaketa sortuko ditu Justizian, eta horietatik bat da abokatuak atxilotuaren lehen orenetan posible dutela atxilotuaren bisitatzea. Orain arte hogeigarren orenetan baizik ez zuten posible, betiere atxilotuak abokatu eskatzen baldin bazuen. Horrek erran nahi du abokatuak gauaren erdian ere prest izan behar dutela komisiariara edo jendarmeriara joateko deia jasoz gero. Baionako auzitegiaren eremuan, 23 lekutan gerta litezke atxilotetak, adibidez Baionan, Hendaian edo Alduden.

Baionan hirurogei bat abokatu dira eta bederatzi taldetan banatzen dira. Talde bakoitzak aste batez permanentzia segurtatzen du. Mendiburu lehenbiziko taldean da. Bederatzi asteren buruan izango du bigarren aldia. Abokatuak, galdeketa hasi aitzin oren erdi batez atxilotuarekin bilduz, honen eskubideak zein diren esplikatu diezaiekete.

«Ongi ulertaraz diezaiekegu badutela isilik egoteko eskubidea». Mendiburuk bertze zenbait eskubide ere aipatu zitzi; baina, oro har, ez du uste «garrantzia handiko berrikuntza» denik, nahiz eta polizien sindikatuek kezka zenbait erakutsi. «Atxilotuari ez diezaiokegu har dezakeen jarrerari buruz

aholkurik eman, dosierra ez baitezakegu ikusi». Mendibururi ez zaio iduritzen inkestaren zati garrantzitsuena atxiloteta denboratik atera denik. «Dozierrak ikusten ahal ez dituguno, ez da aldaketa kualitatibo handirik gertatuko», dio Mendiburuk.

Errugabetasunari buruzko Justiziaren erreformaren alda-

keta handienak ez dira, beraz, atxiloteta denboran gertatzen. Berrikuntza handiena epaile mota berri baten agertzean datza. Askatasunaren eta presondegiratzaren epaileak du erabakiko auzipetu bat presondegiratu ala aske utzi. Horrek Justiziaren antolaketan aldaketa handiak eragingen ditu. Baionan,



ANGELA MEJIAS

Aña Mari Mendiburu, lege berria martxan jarri denetik permanentzia segurtatu duen abokatuetariko bat.

ATXILOKETAK

Urte hasiera lasaia

2.500 atxiloteta gertatu ziren 1999 urtean Ipar Euskal Herrian. Batzaz beste 7-8 atxiloteta egunean. Aste honetan ez da bospasei atxiloteta baino gehiago gertatu, gehienak mozkorrak zirelako edo istiluak sortu dituztelako. Udan gehiago izan ohi da.

adibidez, familia arazoetarako epaileak hartu du postu berri hori. Ondorioz, bere lehengo postua hutsik dago eta berantak ari dira metatzen.

Baliabideak eskas

Erreforma horrek «aitzinamendu garrantzitsuak» ditu, abokatuaren ustez, baina «printzipiozko baieztatze» bat baizik ez da. Elisabeth Guigou, Frantziako Justizia ministro zelarik, «ez zen kezkatu erreforma horren aplikatzeko baliabideez». Lehenbiziko hutsunea epaile kopuruan sumatuko da, jadanik hasi den bezala. Bertzenaz ere, auzi kopuruak igoko dira, asisetako gorteen erabakiei dei egiten ahalko baitzaie eta, beraz, berez pisuak diren epaiketa horiek errepikatzen ahalko dira. Auzien epeak murriztuko dira, gainera.

Aurrekontuak ez baldin badira berrikusten, erreforma nola aplikatuko ote den dudak azaldu dituzte justizia munduko langileek. Abokatuak ere disponibilitate handiagoa eskatuko zaie. Bestalde, berriki Baionan eta Frantzia osoan mobilizazioak iragan ziren derrigorrezko defentsaren ordainketaren igozteaz galdatzeko.

LEGEA

Auzipetuek aukera gehiago

Lege berriak aukera gehiago emango lioke auzipetuari errugabetasunaren zaintzeko. Lege horrek dio presondegia «salbuespena» dela eta ez «erregela». Horren betetzeko, neurriak hartu beharko dira.

AUZIPETZEAK ETA INKESTAK

ATXILOKETA. Abokatuak atxilotetaren lehen orenetik joaten ahalko dira atxilotuaren bisitatza. Orain arte hogeitaz oren egon behar zuten atxilotuek abokaturik ikusi gabe. «Terrorismoari, gaiztagin elkartei eta droga trafikoiari» lotzen dituzten inkestak kasuetan ez da aldaketarik gertatuko.

BALDINTZA ZORROTZAGOAK. Legeak pertsona baten auzipetzeko «gutxiengo heina» goratzeko eskatzen du. Hots, «instrukzio epaileak pertsona bat auzi-

petu dezake haren kontrako zantzu larri edo elkarri lotuak baldin badira bakanrik».

PRESONDEGIRATZEAK

EPAILE BEREZIA. Hemendik aitzina auzipetu baten presondegiratzea edo aske uztea ez du gehiago instrukzio epaileak erabakiko, baizik eta horretarako espreski sortu den epaile mota berri batek: askatasunaren eta presondegiratzaren epailea. Askatze eskaerak epaile horri egin behar zaizkio eta instrukzio

epaileak ere epaile horri eskatu behar dio auzipetuaren presondegiratzea.

BALDINTZAK. Auzipetu bat preso sartzen ahalko da, baldin eta gutxienez hiru urteko presondegi zigorra arriskatzeko badu. Hein hori goratua izan da, orain arte bi urtekoa baitzen.

EPEAK LABURTU. Behin-behineko presondegiratzaren denbora ez da lau hilabete, urte bat edo bi urte baino luzeagokoa izaten ahalko erreformak auzitegiari doazkion kasuetan. Lau hilabetera mugatuko da bost urteko kartzela zigorra baino apalagoa arriskatzeko delarik. Urte batera mugatuko da auzipetua jadanik urte bat baino gehiagoko kartzela zigorra betetzera kondenatua izana delarik edo bost urtez gorako kondena arriskatzeko delarik. Bi urtera mugatuko da delitua atzerrian egin delarik edo hamar ur-

teko kartzela zigorra jaso daitekeelarik. Kasu kriminaletan ere epeak mugatuko dira, gehienez lau urtera. Orain arte mugabeak ziren. Bi urtera mugatuko da zigorra hogeitaz urtez beherakoa litzatekeelarik. Muga lau urtera luzatuko da krimena Frantziatik kanpo egin delarik, auzipetuari hilketa anitz leporatzen bazaizkio edo terrorismo, droga trafikoa, proxenetismo eta diru ohointza kasuetan.

ZAINKETA ELEKTRONIKOA. Behin-behineko presondegiratzea zainketa elektroniko bidez egiteko aukera zabalduko da.

EPAIKETAREN EPEA. Instrukzioa bururatu ondoren, auzia bi hilabeteko epean iragan beharko da, preso diren auzipetuentzat. Epe hori gehienez bertze lau hilabetez luzatzen ahalko da, «ohiz kanpoko kasuetan».